



Eusko Legebiltzarrak emakumeen eta gizonen berdintasunerako onartu duen otsailaren 18ko 4/2005 euskal Legearen azterketa: lege berriak zer-nolako eragina duen emakumeak Irungo eta Hondarribiko Alardeetatik kanpo uztearen kontuan.

I. Sarrera: Aurrekariak eta esparru juridikoa

1996. urteaz geroztik Ararteko erakundea hainbat aldiz mintzatu izan da Irungo eta Hondarribiko emakumeek herri horietako jai nagusietan, hau da, Alardeetan, herrikide dituzten gizonak bezalaxe parte hartzeko duten eskubideaz. Adierazpen horietan argiro eta zalantza izpirik gabe babestu dugu gure legeriako hainbat arautan oinarritzen den eskubide hori (berezi, Espainiako Konstituzioaren –EK– 9 eta 14. artikuluetan eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren –EHAE– 9. artikuluan). Gaiaren mamiari dagokionez, interpretazio hori bermatu dute, halaber, jada irmoak diren Auzitegi Gorenaren bi epaiok ere: 2002ko irailaren 13ko Epaiak, 2239/1998 zenbakiko kasazio errekurtsioan, Hondarribirako; eta 2002ko irailaren 19ko Epaiak, 2241/1998 kasazio errekurtsioan, Irunerako). Epai horietan, bi udalek antolatzen dituzten Alardeetan parte hartzeko eskubidea aitortu zaie emakumeei eta, beraz, udal administrazio horiek ezin dituzte inolaz ere emakumeak Alardeetatik bazter utzi.

Agindu saihestezin horren aurrean, Irungo eta Hondarribiko Udalek une ezberdinetan erreakzionatu zuten (1998an Hondarribikoak eta 2001ean Irungoak), Alardeak ospakizun publiko gisa antolatzeko ardura utzi eta erakunde pribatuen esku utziz; horiek, bere aldetik, Alardeak gauzatzeko era berriak bilatu zituzten: hasieran, EKren 21. artikuluan onartutako elkartzeko eta adierazteko eskubideak eskaintzen zien testuinguruari heldu zioten eta, gero, Eusko Legebiltzarraren 4/1995 Legeari, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituenari. Lege horren 18. a) artikulua irismena dela-eta sortutako eztabaida –berariaz debekatzen baitu pertsonen oinarritzko eskubideak urratzen dituzten jendaurreko ospakizun eta jolas jarduerak ospatzea– orain arte aldi baterako ebatzi du Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak (EHANren 588/2002 Epaiak, Hondarribirako; eta 496/2002 Epaiak, Irunerako): horrela, emakumeak kanpoan uzten zituzten Alardeak gauzatu ahal izateko, udalaren baimena behar zen, 4/1995 euskal Legetik eratorria, lege horren 18. a) artikulua horretarako oztopo ez zela. Hala ere, emakumeentzat eta gizonentzat berdintasunezko Alardeak izateko eskubidea aldarrikatzen duten taldeek kasazio-errekurtsioak jarri zituzten epai horien kontra, eta gai hori argituko duen epaile-erabakiaren zain dauden bitartean, emakumeek Alardeetan parte hartzearen kontrako taldeek Irungo eta Hondarribiko festak antolatzen jarraitzen dute, 4/1995 euskal Legeak eskaintzen dien esparruan.

Bien bitartean, emakumeek Alardeetan parte hartzeko eskubidea dutela aldeztzen duten taldeek era ezberdinetan bideratu dituzte parte hartzeko bideak edo ahaleginak.

Irunen, 2003. urteaz gero, Alardea ospakizun publiko gisa antolatzeko ardura berriro bere gain har dezala eskatu zaio udalari, edo, bestela, 4/1995 euskal Legearen arabera, talde horiei udal baimena eman diezaiela, udalaren ordezkari emakumeentzat eta gizonentzat berdintasunezko Alardea antola dezaten. Eskararen bi puntu horiei udalak ezezkoa emateak Alarde mistoa egitera bultzatu du talde hori, EKren 21. artikuluan



adierazita dagoen elkartzeko eta manifestatzeko eskubidea erabiliz; horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak esku hartu behar izan du ekintzaren baldintza materialak finkatzeko orduan (ibilbidea, ordutegiak eta segurtasun baldintzak).

Hondarribian, berriz, udalari inor bereizten ez duen Alarde publikoa antola dezan eskatzeaz gain, ahaleginak egin dira Jaizkibel emakume eta gizonen Konpainia emakumeen berdintasunezko partaidetzaren kontrakoek antolaturiko Alardean onar zezaten. Ahalegin horrek huts egin du, antolatzaileek horretarako borondaterik erakutsi ez dutelako. Orduan, Jaizkibel Konpainiak EKren 21. artikuluan onartuta dagoen manifestatzeko eskubidea erabiliz desfilatu behar izan du Hondarribiko kaleetan barrena –Irunen bezalaxe–, Herrizaingo Sailak esku hartuta eta gainontzeko konpainiekin batera Alardearen jende-multzoan sartu ezinik. Udalak, bere aldetik, ezein unetan ez du aintzat hartu egin zaion eskaera hau: udalak berriro Alarde publikoa antola dezala, emakumeen eta gizonen berdintasun-gunea sustatzeko asmoz.

Erakunde honek behin eta berriz egiaztatu eta salatu du bi herri horietako emakumeei egiaz eskubideak kentzen dizkien egoera hori, baina errealitatea ez da oraindik aldatu: festok begi-bistan uzten dute herritarren erdiak baztertzen dituztela, emakume izateagatik soil-soilik. Horrek gizartean duen eraginak –ez bakarrik eraginako herrietan, baizik eta Euskal Herri osoan– eta oro har nabaritzen diren ezintasun eta ezinegonak ideia hau zabalarazten dute herritarren artean: demokrazia murriztu eta akastun batean gaudela, izan ere, zama sinboliko izugarrikoa izan arren, ez baita gauza itxuraz hain handia ez den eta, beraz, erraz konpondu beharko litzatekeen arazo bati aurre egiteko. Horrek kezka handia sortzen dio Arartekoari.

Horregatik, Ararteko erakundeak zera baieztatu du etengabe bere adierazpen guztietan: herri-agintari gisa duten erantzukizun bereziagatik, udalek jarri behar dituztela, modu eraginkorrean jarri ere, sexuen arteko berdintasuna lortzeko oztopoak kentzeko neurriak, Alardeak antolatzeko ekimena berriro beren gain hartuz eta, horrela, emakumeentzat eta gizonentzat eskubide-berdintasunean festa-gune bat eratuz.

Testuinguru horretan, Eusko Legebiltzarrak oraintsu otsailaren 18ko 4/2005 euskal Legea –Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa– onartu duenez gero, argitu beharra dago ea lege horrek egoera berria ekarriko dien bereizkeriarik gabeko Alarde batean parte hartzeko beren eskubidea gauzatu nahi duten Irun eta Hondarribiko emakumeei.

Alardeei buruz, bi dira lege berriaren ikuspegitik azterketa sakonagoa merezi duten gaiak edo alderdiak: alde batetik, esparru juridiko berriak zer-nolako eragina izango duen 4/1995 euskal Legetik eratorritako ikuskizun publikoa baimentzean –izan ere, Irungo eta Hondarribiko Udalek urtero baimen hori ematen diete emakumeak onartzen ez dituzten Alardeen antolatzaileei–; eta bestetik, udalek emakumeen berdintasunezko partaidetza benetan bultzatu eta bermatuko duten ikuskizun publiko gisa antolatu behar dituztela Alardeak, betebeharrak hori ondorioztatzen baita Berdintasunerako Lege berriak emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko ezarri dituen betebeharrak orokorretatik. Azkenik, lege horren printzipioekin zerikusia duten alderdien eragina ere aztertu nahi dugu, honako gai honi begira: ezin zaie administrazioaren ahalmen diskrezionalari eutsi,



baldin eta ahalmenok, soil-soilik, emakumeen egiturazko mendetasuna bultzatzen duen gizarte-sistema bat indartu eta sendotzeko egintza diskriminatzaile bat iraunarazten laguntzen badute.

II. Emakumeen berdintasunezko partaidetzarik ez duten Alarde tradizionalak baimentzeko udalaren administrazio-egintza aztertzea, 4/2005 euskal Lege berriaren argitan

1. Berdintasunik gabeko Alardeak baimentzea, egintza diskriminatzaile gisa: Berdintasunerako Legearen 3.1 artikulua, zuzeneko eta zeharkako bereizkeria

Irungo eta Hondarribiko Udalek Alardeak antolatzeko baimena ematen diete emakumeen berdintasunezko partaidetza onartzen ez duten taldeei, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen Eusko Legebiltzarraren 4/1995 Legearen esparruan sartzen den baimentze-egintza baten bidez. Auzitegi Gorenak oraindik ez du bere iritzia agertu baimen horren legezkotasunaz –bereiziki, oinarrizko eskubideak urratzen dituzten egintzak baimentzeko debekuaz (lege beraren 18. artikuluan jasotakoa)–. Berdintasunerako euskal Legeak baditu, ordea, gai horretan ikuspegi berria ekar dezaketzen zenbait xedapen.

3.1 artikulua, adibidez, herri-aginteen jarduera gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorren artean ezartzen du tratu berdinen printzipioa. Printzipio hori bi modutara urra daitekeela dio: zuzeneko bereizkeriaren bidez [3.1 artikulua a) atala], eta zeharkako bereizkeriaren bidez [3.1 artikulua b) atala].

Artikulu horren arabera, pertsona baten edo batzuen sexuan oinarriturik esplizituki bereizketa eginez, neurri batek tratu berdintasuna hautsiko balu, zuzeneko bereizkeria egongo litzateke “...*pertsona bat sexuaren zioz (...) beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean*”; orobat, tratu berdintasun hori ez balitz egintzan edo xedapenean bertan esplizituki hautsiko –itxuraz, xedapen neutroa izango litzatekeelako–, baizik eta egintza edo xedapen haren ondorioz, zeharkako bereizkeriazko neurri baten aurrean geundeko: “...*egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean*”.

Legezko bereizketa horrek ikuspegi berri bat ematen du administrazioaren egintza juridiko bat –aztertzen ari garen kasuan bezala– egintza diskriminatzailetzat jotzeko orduan. Beraz, Alarde tradizionalak edo emakume baztertzailerak baimentzen dituzten egintzak –Irun eta Hondarribiko Udalek burutuak– legezkoak diren ala ez aztertzean, men egin behar zaio Berdintasunerako 4/2005 euskal Legean agertzen den parametro berri bati.



Parametro hori ez da lehenago gure legeriako arau idatzi bakar batean ere agertu, eta ez da legezko parametrotzat erabili orain bideratzen ari diren aurreko urteetako Alardeei dagozkien prozedura judizialean, baina aintzat hartu behar da hemendik aurrera egiten diren ospakizunetan, 2005ekoak barne direla.

Irungo eta Hondarribiko Udalek beren Alarde tradizionalak baimentzen dituztenean, agerikoa denez, talde bati baimena eta gaitasun juridiko-publikoa ematen zaio bi herrietako kaleetan barrena ospatuko den festa bat antola dezan, eta emakumeek ezingo dute festa horretan beren herriko gizonak bezalaxe parte hartu, nahiz eta eduki hori ez den egintzan bertan berariaz adierazten. Hala ere, egintza hori zuzeneko bereizkeriatzat jo eta, ondorioz, baliorik gabe uzteko erabakia auzitegiek gai honetaz egin dezaketen epaiketaren mende dago une honetan, bada kalifikazio juridiko hori aurreko lege-esparrutik ere ondoriozta zitekeen (Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko 4/1995 euskal Legearen 18. artikulua, EKren 14. artikuluekin eta EHAEn 9. artikuluekin lotuta). Udal horiek diotenez, baimena emateak ez ditu berez emakumeak baztertzen, baimendutako pertsonak egiten dute hori, beren irizpideen arabera antolatuko baitute Alardea; beraz, jarrera horren arabera, hemen ez gaude administrazio egintzan esplizituki agertzen den bereizkeria baten aurrean. Oso garrantzitsua da administrazioak baimendu duen jardueraren edukia kontrolatzea, hura baldintzapean jarriz, baina, harrigarria bada ere, udal administrazioek alde batera utzi dute elementu hori, baimena emateko ez baitute exijitu oinarritzko eskubideak errespetatzeko baldintzarik funtsezkoena ere. Kontu garrantzitsu hori aztertzen hasi gabe, kasu honetan, 3.1 b) artikuluan aipatzen den zeharkako bereizkeria aplikatzea egokia ote den aztertzea komeni da.

Orduan, zuzeneko bereizkeriarik ez dagoela eztabaidagarritzat jo daitekeen arren (edonola, epaitegiek erabaki beharko dute hori), neutrotzat jo nahi den administrazio-egintza horretatik, egiaz, 3.1 b) artikuluko debekuarekin guztiz bat datozen ondorioak ateratzen dira –*“sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragitea”*–, inork ez baitu zalantzan jartzen baimen hori eraginkorra izango dela emakumeek parte hartzerik izango ez duten eremu publiko batetik igaroko den festa-gunea prestatzeko, eta horrek, duda barik, bereizkeria eragiten du: bereizkeria egintzan bertan esplizituki ez agerturik ere, egintza horren ondorioa da eta, beraz, 4/2005 euskal Legearen 3.1 b) artikuluan aipatutako zeharkako bereizkeriaren aurrean kokatzen gaitu.

Zeharkako bereizkeriaren kategoria juridikoa, jakina denez, bereizkeria eragozteko Zuzenbideko teoriak asmatu zuen tresna garrantzitsua da (jatorriz, AEBetan). Bere helburua formalismo juridikoa gainditzea da, funtsean dauden bereizkeriak antzemateko, egintza juridiko jakin batek hartzen duen itxura formalaz haraindi. Nozio juridiko hori jada jasota dago jurisprudentzia konstituzionalean eta orain arau juridiko batean onetsi dute, zehazki eta berariaz.

Horrela, Berdintasunerako Lege berriaren 3.1 b) artikulua iritzia osatzeko parametro sakonagoa eta eraginkorragoa da, neurri zorrotzagoa, zalantzarik gabe, eta herri-administrazioari betebeharrak jartzen dio: *“sexuarekin loturik ez*



dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzea egintza hori egokia eta beharrezkoa dela". Beraz, Irungo eta Hondarribiko Udalei dagokie justifikazio hori ematea. Frogatu beharraren zama edo ardura alderantziz jarri du, apropos, horrelako egintzak aztertzen dituen legeak, egintzaren izaera diskriminatzailea eta, beraz, egintzaren baliogabetasuna *iuris tantum* gisa hartuz (aurkako froga onartzen duen presuntzioa).

Gogoeta horiek hautsi egiten dute Alarde tradizionalen aldekoek defendatzen duten diskurtsoa –alegia, berdintasun printzipioaren eraginkortasuna ahuldu egiten dela partikularren arteko harremanetan–, izan ere, udalek Alarde horietarako baimena ematea, ikusi dugunez, zeharkako bereizkeriazko egintzatzat jotzen du 3.1 b) artikulua eta, horren ondorioz, gai honen ardatza berriro herri-aginteen jardueran kokatzen da, harreman juridiko-publiko deitzen ditugun horietan; jakina, inork ez du zalantza egiten harreman horietan berdintasun printzipioa guztiz eraginkorra izango dela, eta, Alardeen kasu zehatzerako, dagoeneko badira auzitegien epai irmoak (guztien adibide, Auzitegi Gorenaren 2002ko irailaren 13 eta 19ko Epaiak, Irunerako eta Hondarribirako, hurrenez hurren).

2. Zer eduki eta irismen duen 25.1 artikulua (bigarren paragrafoa)

Berdintasunerako euskal Legearen 25.1 artikulua, bigarren paragrafoan, legea Legebiltzarrean bideratzen ari zen azken uneetan sartu zen klausula bat dauka. Klausula horrek helburu hauxe zuen –zuzenketa moduan sartu zuen legebiltzar taldeak jendaurrean adierazi zuenez–: emakumeen berdintasunezko partaidetza onartzen ez duten Alardeei ez ematea Irungo eta Hondarribiko kaleetatik igarotzeko aukera. Berariazko debekua dakarren klausula da, zuzenean Alardeei dagokiena, lehen zegoen esparru juridikoa indartuz. Honela dio:

“Debekatu egiten da emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan”.

Bestalde, 25. artikulua zenbait betebeharrak ezartzen dizkie euskal herri-administrazioei kulturaren alorrean. Alardeak, jai-gertaerak direnez gero, kultur jarduerak dira eta, izatez, bi udal horien Kultura Sailetan edo Zinegotzigoetan kokatuta egon dira. Lehenagoko esparru juridikoaren aldean (Jendaurreko Ikuskizunei buruzko 4/1995 euskal Legearen 18. artikulua) lege honek dakarren berrikuntza zera da: oraingo legezko debeku hau “*gune publikoetan*” burutzen diren eta, zehazki, “*emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten*” kultur ekintzei dagokiela, eta 4/1995 euskal Legearen 18. artikulua, aldiz, oro har pertsonen oinarriko eskubideak hausten zituzten ikuskizun publikoak debekatzeari zegokiola. Beraz, jarduera debekatu hori oinarri bakar batean zehaztu dute: sexuagatik eta, bereziki, emakume izateagatik berdintasuna urratzean, hain zuzen.



Garrantzizkoa da klausula hori Legebiltzarrean nola izapidetu zen berriro aipatzea: hasieran ez zen Gobernuaren proiektuan agertu eta legebiltzar prozeduran zehar proposaturiko zuzenketa baten ondorioz sartu zen; zuzenketa hartan garbi adierazi zen Berdintasunerako Legeak desagerrarazi egin behar zuela Irungo eta Hondarribiko emakumeak Alardeengatik pairatzen duten bereizkeria. Asmo horrekin bakarrik onetsi zuen gero legebiltzarkideen gehiengoak klausula hori sartzea. Klausularen edukia interpretatzerakoan, hortaz, hura prestatu zen unean legegintza-aginteak lortu nahi zuen helburua hartu behar da erreferente gisa. Bai klausula hori sartzeko egin zen zuzenketa azaldu ziren arrazoiengatik, bai Emakumearen eta Gazteriaren Batzordeak irizpena onartzean eman zituenengatik, eta baita lege hori behin betiko onartzeko legebiltzar batzaren bilkuran eman ziren arrazoiengatik, interpretazio teleologiko bakarra izan dezake aipatutako klausulak: klausulari eraginkortasuna eman behar zaio, emakumeak Alardeetan berdintasunean parte har dezaten, baita pertsona partikularrek antolatzen dituzten eta udalaren baimenaren bitartez kaleetan barrena ibiltzen diren Alardeetan ere.

Klausula horrek debeku moduan adierazten du gune publikoetan ezin direla emakumeak diskriminatu. Hortaz, egintza jakin bat baimentzeko ahalmena duen administrazioak egintza diskriminatzailea debekatu behar du, berariazko eta arau horretan oinarrituriko jarduera baten bidez. Ofizioz debeka dezake –arauan deskribatuta dagoen egitatezko kasua gerta litekeela pentsarazten duten zantzuak antzemango balitu administrazioak berak (*“emakumeek gizonetikiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan*)– edota alderdi batek eskatuta. Bigarren kasuan, hau da, udalari aurreikusitako egintza edo egintzak debeka ditzala eskatzen badiote, eskaera oinarritzeko balio duen arauaren xedea aintzat hartuz ebatzi beharko du udalak. Ildo horretan, lehen ere aipatu dugu zein izan zen legegileak argiro eta berariaz azaldu zuen asmoa, Legebiltzarreko bideratze-prozesuan zehar islatu zena: klausula horren bitartez, Alardeak direla-eta euskal gizarte osoan urtero ikusten den emakumeen bazterketa desagerrarazi nahi zela. Halaxe jasota dago 4/2005 euskal Legea onartzeko asmoz Legebiltzarrak 2005eko otsailaren 17an egin zuen osoko bilkurako legebiltzarkideen adierazpenetan; baita ere, lege horri buruzko Irizpena onartzeko asmoz, Emakumearen eta Gazteriaren Batzordeak 2005eko otsailaren 3an egin zuen bileran ere.

Begi-bistakoa da administrazio eskudunak ebaluatu egin beharko dituela, halaber, berdintasun-baldintzak betetzen ez dituzten kasuak: adibidez, emakumeei parte hartzen utzita ere, parte hartzeko erak ez badizkiete, gizonen aldean, berdintasun-baldintzak eskaintzen, debekatu beharreko jarduera baten aurrean egongo gara. Horretarako, administrazioak bereizkeriari buruzko irizpide bat izan beharko luke, jardueraren antolatzaileek ezarri duten partaidetza-eran emakumeentzako berdintasun-baldintzak betetzen diren ala ez erabakitzeko, hain justu. Jarduera-printzipio hori Alardeetara ekarriz, administrazioak gauza bakarra ebaluatu beharko du: ea emakumeak kantinera gisa parte hartzea nahikoa ote den haien partaidetza berdintasunean burutzen dela uste izateko.



Irungo eta Hondarribiko Alardeetan, kantinera bakarra izaten da bi mila gizoneko gutxi gorabehera, emakumeak bere bizitzan behin bakarrik aukeratzen dituzte kantinera –“edertasun, begikotasun eta gaztetasun” irizpideen arabera– urtero mugarik gabe desfilatzen duten gizon horiek, eta espresuki emakumeen mendekotasuna sinbolizatzen duen rol baten bidez betetzen dute beren egitekoa; rol hori sexistatza baino ezin da jo, emakumeei Alardeetan parte hartzeko beste aukerarik ematen ez zaiela kontuan izanik.

Alardeetan emakumeek kantinera gisa parte hartze hutsarekin berdintasun-baldintzak betetzen ez direla-eta, epaitegiek jada epaitu zuten gai horren mamia Alardeei dagozkien prozesuetan, Alardeok bi herri horietako udalek antolatzen zituztenean. Prozesuok bukatzeko Auzitegi Gorenak eman zituen epai irmoetan, bereizkeria zegoela onartu zen eta gai hau aski aztertuta geratu zen. Garai hartan publikoak ziren Alarde horiek kalifikatzeorakoan, gaia epaitu zuten auzitegiek inolako zalantzarik gabe adierazi zuten sexuagatik berdintasunaren printzipioa urratzen zuten jarduerak zirela (Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak 1998ko urtarrilaren 16 eta 17ko Epaietan eta Auzitegi Gorenak 2002ko irailaren 13 eta 19ko Epaietan). Gaiaren mamiari buruzko iritzi horrek –4/2005 euskal Legea bideratzean legegileak adierazitako helburuarekin bat dator eta berori sendotzen du– erreferentzia-parametro izan beharko luke udalentsat, Berdintasunerako Legearen 25.2 artikuluari jarraiki, administrazio-egintza baten bidez horrelako jarduerak debekatzeaz erabaki bat hartzean.

2005ean ospatzekoak diren Alardeei dagokienez, eta kontuan izanik –hedabideek jendaurrean adierazi dutenez eta erakunde honek egiaztatu duenez– udal-baimenak dagoeneko eman direla Berdintasunerako euskal Legea indarrean jarri baino lehen, komeni da azpimarratzea baimena eskatu zeneko egunak ez duela inolako garrantzirik datozen bi Alardeetan lege hori aplikatzeko. Baimenaren mende dauden ospakizunak 2005eko ekainean eta irailean egingo dira, hurrenez hurren: orduan lege hori indar betean egongo denez gero, herri-administrazioak aipatutako baimenak egokitu beharko ditu jarduera baimendua –ospatuko den uneagatik eta tokiagatik– bere baitan hartuko duen legezko parametro berrira, eta ez du aitzakiatzat jartzerik izango baimenok legea indarrean jarri baino lehen eskatu eta eman zirela. Egiaz, legeak ez du erregimen iragankorrik aurreikusi eta ez du lehenagoko administrazio-egintzarik aipatu, baina argi eta garbi adierazi du emakumeentzat diskriminatzaileak diren egintzak gune publikoetan ospatzeko debekua –zeharo eraginkorra legea indarrean jartzen denetik–. Une horretatik aurrera, beraz, 2005eko ekainean eta irailean ospatuko diren Alardeei dagokienez, agindu hori aplika eta bete dezala eska dakioko administrazioari –berak ofizioz betetzen ez badu, egin beharko lukeen bezala–.

3. Legean agertzen diren eta Alarde tradizionalak deritzenetan eragin dezaketen beste debeku eta murrizketa batzuk

Legearen 25.2 artikulua ondorengo debekua ezartzen die herri-administrazioetako ordezkariari: *“kultura-jardueraren batean –hor sartuta jai*



kutsukoak (...)- sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada, (...) ezin izango dute jarduerotan administrazioaren ordezkari gisa parte hartu". Beraz, xedapen hori dela medio, desagertu egingo litzateke Irungo eta Hondarribiko alkateek eta beste ordezkari batzuek emakumeak baztertzan dituzten Alardeetan parte hartzeko duten ohitura –tropei udaletxean harrera eginez, aginte-makila jasoz edo nolabaiteko parte-hartze aktibo edo pasiboa adierazten duten beste ekintza edo sinbolo batzuen bidez–.

Era berean, 3.1 artikulua (hirugarren paragrafoan), sexuagatik diskriminatzen duten jardueren laguntza publikorik edo diru-laguntzarik ematea debekatzen du; debeku hori indartu egiten da 25.2 artikuluan: "*kultura-jardueraren batean –hor sartuta jai kutsukoak (...)- sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada, (...) euskal herri-administrazioek ezin izango diote jarduera horri inolako laguntzarik eman*". Bestalde, lege horren 24.2 artikulua debekatu egiten du laguntzarik ematea "*kideak aukeratzeko prozesuan edo lan jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak*".

Artikulu horietan *laguntzak* oro har aipatzen badira ere, horrek ez du eragozten legea diru-laguntzez ari dela ulertzea. Alabaina, beste ondorio hau ere atera daiteke: debeku horrek herri-administrazioei inplizituki exijitzen diela ez diezaiotela inolaz ere lagundu sexuagatik diskriminatzen duen ezein erakunderi. Horrela, lege horretan bilduta dauden gainontzeko xedapen eta printzipioak modu koherente eta bateratzailean ulertuta, nozio horrek honako hau ere adieraziko luke: herri-administrazioak ezin duela edozein jarduera diskriminatzaile prestatu edo baimendu. Beraz, lehen argitu ditugun 3.1 eta 25.1 (bigarren paragrafoa) artikuluetako aurreikuspenak azaltzen dira berriz ere.

III. Udalak inor baztertzan ez duten jaiak sustatu eta erraztu behar ditu: legea noraino iristen den bereizkeriarik gabeko Alardeak antolatzean udalei protagonismoa exijitzean

Orobat, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 euskal Legetik –otsailaren 18koa– esparru juridiko berria ondorioztatzen da Irungo eta Hondarribiko Udalei ezartzen zaizkien betebeharrak zehazteko orduan ere, herri horietako emakumeek gizonetikiko duten berdintasun-eskubidea errespetatuko duen jai- eta kultura-politika eratzeari dagokionez; esparru juridiko berri horrek eragin berezia du 2005etik aurrera Alardeak egingo diren moduan.

Lege horren 2.2 c) eta 4.3 artikuluen arabera, udalentsat sortua da, baita gainontzeko euskal herri-administrazioentzat ere, legeak emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko ezarri dituen betebeharren multzo orokorra.

Herri-administrazioentzako betebeharren erregimen hori legearen artikulua multzo osoan zehar agertzen da. Hala ere, gure ustez, bereziki 3.4, 3.5 eta 3.6 artikuluetan, alde batetik, eta 25.1 artikuluan (lehen paragrafoa), bestetik jasota daude Irun eta Hondarribiko Udalek Alardeen gai zehatzean bete behar duten



eginkizuna argitzeko betebeharrak zehatzak. Beraz, astiroago aztertuko ditugu xedapenok.

1. Generoaren ikuspegia jaiari dagokien udalaren politikan, eta bereizkeria eragozteko neurriak kulturaren alorrean

3.4 artikulua agintzen duenez, euskal herri-aginte guztiek “*genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten*”. Udalaren politika eta ekintza asko ikuspegi berri horrek baldintzatuta geratu dira aurrerantzean: horren arabera, sistematikoki hausnartu behar da ea sexuagatiko berdintasunaren helburua bermatuta geratzen den ekintza zehatz baten bidez edo udalerrian burutzen den politika publiko baten esparruan; eta jakina, bi udalen jai- eta kultura-politika da baldintzatutako ekintza horietako bat, eta, horren barruan, Alardeak prestatzean eragina izan dezaketen ekintza zehatzak.

Herri-agintek kulturaren alor berezian bereizkeria deuseztatzeko duten berariazko betebeharrak gehitzen zaio goiko horri. Horixe ondorioztatzen da legearen 25.1 artikulua lehen paragrafoaren edukitik, hauxe agintzen baitu: euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, “*beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela (...) kultura-jarduera guztietan*”. Irungo eta Hondarribiko Udalen jaien politikak, hortaz, bi agindu horiek baldintzatuta geratzen dira: alegia, genero-ikuspegia erabili behar dute eta, horrekin bat etorritik, alor horretan bereizkeria desagerraraziko dela bermatzen duten ekintza zehatzak hasi.

Ez dago zalantzarik aurreko urteetako Alardeetan udalek ez dutela ezer sustatu emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko, berdintasun eskubidea argiro hautsi baitute emakumei parte hartzen uzten ez dietenek. Udal administrazioek ez dute ezer egiten bereizkeriarik gabeko jaiak ahalbidetze aldera –adibidez, orain ematen dituzten baimenak baldintzatuz (emakumeek berdintasunean parte hartuko dutela bermatzearen baldintza jarritik) edo, nolana ere, emakumeen partaidetza ziurtatuko duen jai-gunea prestatuz–; jarduera falta horrek aurrez aurre talka egiten du 3.4 artikuluan aipatutakoarekin (desberdintasunak kendu behar direla), baita 25.1 artikulua lehen paragrafoan adierazitakoarekin ere (bereizkeria galarazteko neurriak hartu behar direla).

Berdintasunerako Lege berriaren esparruan, bi udalek berrikusi egin behar dituzte beren kultura-politiken jarraibide orokorrak, 3.4 artikuluan finkaturiko helburura moldatzearen, eta ezin dira inolaz ere onartu alor honetan bi udalak burutzen ari diren ekintza zehatzak, ekintzok orain arte ez baitute genero-ikuspegi txikienik ere izan, legearen ikuspegitik begiratuta; izan ere, ez dute inolako ekimenik abiarazten, ospakizun egunetan kultura- eta gizarte- bizi osoa metatzen dituen jai bat baimendu besterik ez dute egiten, eta, gainera, jai horretan emakumei ez zaie gizonen bezalaxe parte hartzen uzten.



Horretaz gain, 25.1 artikuluko agindutik aurrera, bi udalak beren udalerrietan urtero burutzen den bereizkeria eragozteko zein neurri abiarazten ari diren galdetu beharra dago oraindik. Alor honetan ikusten den jarduerarik eza ez dator bat Berdintasunerako 4/2005 euskal Legeko xedapenekin, xedapenok jardutera bultzatzen baitute, hain zuzen, udal biek kultura eta jaien arloan dituzten politika eta ekintzekin guztiz kontraesanean dagoen ildoan jardutera.

Orduan, aztertutako arauen arabera, debekatuta dago jarduera diskriminatzaileak burutzen laguntzea, eta, era berean, udalek bideren bat eratu behar dute bi herrietako jai nagusian –hortaz, udalerrri horietako historiaren eta identitate kolektiboaren adierazgarri nagusian– emakumeek gizonek bezalaxe parte hartuko dutela bermatzeko.

Udalak Alarde publikoa antolatzeko ardura berreskura dezala proposatu da, formula horri bizitasuna emango dion tresna gisa; proposamen hori ez da bitxia lege berriaren esparruan, aitzitik, berrezarri egiten du bi udalerrri horietan tradizioa duen administrazio-jardunbidea. Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak emandako epaien ondoren utzi zitzaion jardunbide horri, izan ere, epai haietan baliogatu egin ziren Alarde publikoetan –ondorioak ekiditeko asmo bakarrarekin– emakumeen berdintasunezko partaidetza eragozten zuten udal jarduerak (EHANren 1998ko irailaren 16 eta 17ko Epaiak, hurrenez hurren). Gainera, Iruni dagokionez, behar bezala eraturako udal Ordenantzan agertzen dira udalaren Alarde-antolaketari buruzko xehetasunak (1980an egiten zen aldaketaren bat azkenekoz) eta gaur egun indarrean jarraitzen du, oraindik ez baitute indargabetu. Hondarribiari dagokionez, formalki ez zen prestatu, udalbatzaren onespenez, Alardearen Ordenantza deritzana, baina, hala ere, arau-multzo hori XX. mendearen zati handi batean aplikatu izanak ohitura-balioa eman dio, eta Hondarribiko Udalak halaxe aplikatu zuen Alardea berak zuzenean antolatzen zuen garaian.

Beraz, aurrekotik ondorioztatzen denez, bi udal horiei agindu zaie beharrezko ekintzak burutu ditzatela herritar ororen jai-ondare den horretan emakumeek toki bat izan dezaten ahalbidetuko duen formularen bat ezartzeko. Lege-agindutzat hartu behar da udalak berriro ere Alarde publikoa antolatzea, bi sexuen arteko berdintasun printzipioa beteko dela bermatzen duena, ez baita proposatu beste tresna egokiagorik eta ezinezkoa baita antolatzaile pribatuak nahi ez dutena egitera behartzea (udalek, harreman pribatuen alorrean, bi gauza bakarrik egin ditzakete: egintza debekatu edo baimena baldintzapean jarri, baldintza bete ezean egintza debekatuko duela ohartaraziz).

2. Ekintza positiboa. Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak kentzea

3.4 eta 25.1 artikuluetan ez ezik, beste xedapen batzuetan ere adierazten da udalek neurriak hartu behar dituztela, gizartea berdintasunez ulertzeko guztiz arbuigarria den oraingo egoera hau aldarazteko. Berdintasunerako Legearen 3.5 eta 3.6 artikulua dira, hain justu.



Azken artikulua horrek sexuaren araberako gizarte rolen eta estereotipoen ezabaketa sustatzera behartzen ditu herri-aginteak. Irungo eta Hondarribiko kaleetan emakumeek urtero jasaten duten bazterketa nabarmenak –jaiak publizitate handia eta hedadura izaten ditu, eta gizartearen zati handi batek gertutik jarraitzen du–, kultura-kontzientzia kolektiboan eragiten du, eremu publikoan gizonezkoaren nagusitasunaren estereotipoa primeran sinbolizatuz eta emakumea soil-soilik kaleetan gertatzen denaren ikusle-rola betetzera baztertuz (espaloietatik txaloka) edo, bestela, kantinera izatera, baldin eta, gaztetasun eta edertasun arau batzuk betetzen baditu eta gizonak bera kantinera aukeratzeko “pribilegioa” izan badu. Euskal herri-aginte guztiek dute horrelako estereotipoak kentzeko ardura, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari ere badagokie, bakoitzari bere eskumen-eremuan (sentsibilizazio-kanpainak diruz laguntzetik hasi eta hezkuntza arloan neurriak hartzeraino, adibidez). Hala ere, dudarik gabe, bereziki udalei dagokie oraingoan ere betebeharrak, kultura eta jaien alorrean duten aginpideagatik (bereziki, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2 m) artikulua eta Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen Eusko Legebiltzarraren 4/1995 Legearen 16.2 b) artikulua, 16.3 a) artikuluekin lotuta).

Berdintasunerako Legearen 3.5 artikulua, azkenik, ekintza positiboko neurriak izenekoak aurreikusi ditu. Neurriok bi bereizgarri dituzte: aldi baterakoak dira eta errealitateak gutxien laguntzen duen biztanle-sektorearen alde jarduten dute. Horrela, 6. b) eta 7. b) artikuluetan zehazten da, hurrenez hurren, ekintza positiboko neurriok nola gauzatu. Irunen eta Hondarribian urtero, izatez, baliorik gabe uzten dira biztanleriaren erdiaren eskubideak; horregatik, herri-aginte guztiek ezinbestean konponbideak bilatzen esku hartu behar dute, legeak baimendutako eta agindutako baliabideak oro erabiliz. Ekintza positiboak burura etor dakizkigukeen bezainbeste forma har ditzake, baina –Alarde publikorik ezean– honako hau da, zalantza barik, forma horietako bat: gizonak eta emakumeak berdintzen dituen Alarde misto baten antolaketa pribatua finantzatzea, hori sustatzeko gai diren pertsona edo taldeen alde jokatzeko. Jakina, horretarako, udalek antolaketa mota hori baimentzeari eman behar diote lehentasuna, berdintasunaren baldintza betetzen ez dutenen aurretik. Titulu bidez hala jokatzeko ahalmena duen edozein administraziok finantza dezake Alarde hori: udalek, dudarik gabe –azaldu ditugun arrazoiengatik–, baina baita Aldundiak ere (eskubideen eta gizarte ongizatearen alorrean duen aginpidea dela medio) edo Eusko Jaurlaritzak, Emakunderen bidez edo Justizia Saileko Giza Eskubideetarako Zuzendaritzaren bidez. Administrazio horiei guztiei eska dakieke hori 3.5 artikulua ikuspegitik, eta eskatzen zaien neurrian, jardun egin beharko lukete.

Edonola ere, gai honetan euskal herri-administrazioei zein eginkizun zehatz dagozkien aurreikusten du Berdintasunerako Legeak bere artikuluetan barrena. Horrela, euskal herri-administrazioak legez gaitzen ditu era ezberdinetan esku har dezaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortze aldera. Ildo horretan, interesgarriak dira 5. artikulua (autonomia administrazioarentzat), 6.a (foru administrazioarentzat) eta 7.a (tokiko administrazioarentzat). Azpimarratzekoak



dira, gai honetan duten garrantziagatik, 5. artikulua p) puntua eta 6 eta 7. artikuluetako l) puntua, bereizkeriazko egoerak antzeman eta desagerrarazteko neurriak hartzeari dagokionez, eta 6 eta 7. artikuluetako f) puntua, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun-egoeraz sentsibilizazio-ekintzak burutzeari dagokionez.

IV. Udalaren aukeramenari mugak jarri behar zaizkio herriko jaiak prestatzearen alorrean

Berdintasunerako Lege berritik herri-administrazio eskudunentzat ondorioztatzen diren betebeharrak azaldu eta gero, komeni da adieraztea, halaber, xedapen horiek guztiak jarduera publiko guztien printzipio orientatzaileak ere badirela, aldi berean (bereiziki 3. artikulukoak –artikulu hau sistematikoki Legearen atariko tituluan kokatuta dago, “printzipio orokorrak” idazpuruarekin). Beraz, erreferentzia saihestezina eskaintzen dute Irun eta Hondarribiko Udalek, herriko jaien konfigurazioari buruz hartzen dituzten erabaki libreak justifikatzeko, beretzat hartzen duten ahalmen diskrezionala interpretatzeko orduan.

Egiaz, udalerriek eman beharreko gutxieneko zerbitzuen artean, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ez du 26. artikuluan berariaz aipatzen Alardea antolatzeako betebeharra; zertzelada horretan oinarritu zen Irungo Udala, 2004ko maiatzaren 26ko 1381 Erabakian, Irungo herritar talde batek egindako eskabidea –udalak udal Alardea antola dezala– oso-osorik ezesteko. Bestalde, 2004. urtean, udal horrexek, eskabide-idazkiko akats formaletan babestuz, ez zuen emakume eta gizonentzako berdintasunezko Alardea antolatzea baimendu; eskabide hura ere talde horrek egin zuen, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen 4/1995 euskal Legearen esparruan. Udalaren bi jarduera horiek 1381 zenbakiko Erabakian alkateak administrazioaren ahalmen diskrezional deitzen duen horretan oinarritzen dira, izan ere –bere idazkietatik ondorioztatzen denez– alkatearen ustez ezein arauk ez du Alardea antolatzera behartzen, ezta Alardearen antolaketa talde jakin bati baimentzea ere, nahiz eta talde hori berdintasunezko Alardea antolatzeako prest egon, 2004ko Alardea antolatzeako baimena jaso zuen taldea ez bezala, talde horrek emakumeentzako argiro diskriminatzaileak ziren baldintzetan antolatu baitzuen.

Hondarribiko Udalak ere jarrera bera du –gai honen mamiari dagokionez–, bada Alarde diskriminatzailea baimendu baino ez du egiten, emakume eta gizonentzako berdintasunezko Alarde publikoa antolatzea inola ere sustatu gabe, udalak bereizkeriarik gabeko Alardea antola dezan eskatuz Joana Mugarrietakoa emakume taldeak urtero egiten dituen eskabideak ezetsiz.

Administrazioaren diskrezionalitate edo aukeramenak zenbait muga ditu, eta kasu honetan agerikoak dira, batez ere Berdintasunerako euskal Legeak gai honetan ematen duen argi berriarekin, izan ere, lege horren arabera, gaur egun ez



dago aldezerik sexuen arteko desberdintasuna tinko iraunarazten duen administrazio-aukeramenaren eremurik. Administrazioak dituen aukerak egokierazko aukerak dira, betiere lege horren helburuak beteko direla bermatzen bada; osterantzean, aukera horiek zuzenbide-kontrakoak izango lirateke, azaldu ditugun arrazoiengatik. Ikusi dugunez, gaur egun legezko agindu saihestezina da genero-ikuspegia udalen politika eta ekintza guztietan nahitaez aintzat hartzea (Berdintasunerako Legearen 3.4 artikulua). Egia esan, Berdintasunerako Legeak agindu hori gauzatzeko tresna zehatzez egin dituen aurreikuspenak, 18. artikuluan eta hurrengoetan bilduak (generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzearen figura, esaterako) geroago aplikatzeko uzten dira, 19.2 artikuluan eta azken xedapenetako zortzigarren eta hamahirugarrenak kontuan izanik gero araudia garatzen denerako. Hori ez da oztopo, ordea, hirugarren artikuluan finkatutako helburuek arau-balio osoa eta eraginkortasun loteslea izan dezaten administrazioaren jardura diskrezional deritzenetarako, jardura horiek ezin baitituzte helburuok nabarmenki eta erabat hautsi, nahiz eta oraindik, aldi baterako, 19. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako ebaluazio-bide zehatzak erabiltzetik libre dauden. Genero-ikuspegia eta ekintza positiboa erabiltzeko legezko printzipioak (Berdintasunerako Legearen 3.4 eta 3.5 artikulua), gainera, Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluan jasota dagoen printzipio orokorraren zehazpena ere badira, eta biziki indartzen dute printzipio horren galdagarritasuna, garatu eta zehaztu egiten baitute horren edukia.

Horregatik guztiagatik, ezin da aukeramen-eremua arrazoitzat aipatu emakumeentzat bereizkeria nabarmena dakarren egoera sendotzera bakarrik bideratzen diren udal-aukerak juridikoki legitimatzeko. Puntu honetan ez dago ahazterik “administrazio-aukeramena” kontzeptuari buruz dagoen jurisprudentzia-doktrina sendoa; doktrina horrek jardura-eremua mugatzen die herri-administrazioei, aukeramena kontrolatzeko elementuak deritzenen bitartez: kontrol-elementuen artean azpimarragarriak dira Zuzenbidearen printzipio orokorrak, haietara egokitu behar baitu administrazioaren funtsezko erabakiak.

Irungo eta Hondarribiko Udalen jai-politikak –beren kultura jardueraren esparruan– ezin du arlo honetan geldoa izan (egokierazko aukera hori, jakina denez, ez jarduteko erabaki gisa ere fiskaliza daiteke), bada ez jarduteak izateko bereizkeria-egoera sortzen du herri horietako emakume guztientzat, eta udalek, herri-aginte eskudunak direnez, nahitaez aurre egin behar diote egoera horri. Iraganean udalek aukeratzeko ahalmentzat jo zezaketena, jardura arbitrarioa eta Zuzenbidearen kontrakoa izan daiteke orain, udal administrazioek jada ez baitute beren esku, Berdintasunerako Lege berriaren esparru berrian, egokierazko aukera hau: beren eskumen-eremuan burutzen den jai nagusian emakumeak argiro baztertzen dituztela ikusirik, ez jardutea; izan ere, aukera hori gauzatzea ez litzateke Zuzenbidean hutsala edo garrantzirik gabea izango.

Horregatik, gure ustez, esparru juridikoa izugarri aldatu da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak Alardeei buruzko epaiak eman zituen unearerako: 1999ko urriaren 7an, Hondarribiarentzat, eta 2002ko ekainaren 21ean, Irunentzat (azken hau kasazioaren zain, Auzitegi Gorenaren aurrean); hala ere, Irungo Udalak epai horiek ematen ditu arrazoitzat udalak Alardea antolatu beharrik ez daukala



oinarritzeko. Lege-esparruaren aldaketa horrek funtsean aldarazten du, azaldu dugunez, herri-administrazioen betebeharren erregimena, emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeari dagokionez.

V. Udalen jarduerak baliorik gabe uzteko erregimena

Azkenik, Berdintasunerako Legean ez da ageri sistema hertsatzaile berezirik administrazio-jarduerari buruz, ezta herri-aginteek lege horren artikuluetatik ondorioztatzen diren betebeharrak ez betetzeko aukerari buruz ere; horregatik, administrazio-egintzak baliorik gabe uzteko dagoen erregimen orokorrera jo behar dugu. Erregimen hori 30/1992 Legean araututa dago –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena–, hain zuzen, 62. artikuluan eta hurrengoetan. Zeharo baliogabetzat hartu behar dira Berdintasunerako Legearen 3.1 artikulua araberako diskriminatzailetzat jo daitezkeen egintzak –30/1992 Legearen 62.1 a) artikuluan aipatutako kasuen artean daudenak–, Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten dietelako. Zuzeneko edo zeharkako bereizkeria ez sorturik ere, arau horretan finkaturiko betebeharrak ez betetzeagatik Berdintasunerako Legearen xedapenak urra ditzaketen administrazioaren gainontzeko jarduerak, berriz, 63. artikuluko deuseztagarritasun erregimenaren mende geratuko liriteke oro har, legeria urratzen dutelako. Hemen zera azpimarratzea komeni da: administrazioaren jarduerarik ezak garrantzi handia duela Berdintasunerako Legeak ezartzen dizkion betebeharrak zehatzak ez betetzeko modu gisa, eta horren kontra jo daitekeela, administrazioarekiko auzi-errekurtoaren bidez, inpugnazio hori berariaz onartzen baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legean, 25.2 artikuluan.

VI. Ondorioak

Gaur egun emakumeek Irungo eta Hondarribiko jai nagusietan bizi duten bazterketak, bi udalen beharrezko laguntza dela bide, zera jartzen du agerian: herri-aginte horiek jarrera aktiboa dutela emakumeen egiturazko mendetasunaren ideian oinarriturik eraiki den herritartasun-kontzeptu moztu bat sendotzen, baina kontzeptu horrek ezin duela gure demokrazia-sisteman tokirik izan. Berdintasunerako euskal Legea, ikusi dugunez, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun orori aurre egiteko tresna juridikoa da, eta legezkotasun-parametro berriak finkatzen ditu Alardeen arazorako.

Bi udalek, alde batetik, urtero baimendu egiten dute emakumeei berdintasunean parte hartzen uzten ez dien Alardea antolatzea, eta, bestetik, ez dute inolako neurririk hartu nahi beren udalerrietako emakumeak beren jai nagusian esku hartzea ahalbidetzeko. Jarrera hori ez dator bat, inondik ere, Berdintasunerako euskal Legean xedatutakoarekin. Batera ezintasuna bi alderdiri dagokie.



Alde batetik, Alardeak antolatzea baimentzen duen udal ekintza dugu. Baimen hori gaitasun-emaile juridiko beharrezkoa da Alarde tradizional izenekoak gauzatu ahal izateko. Ospakizun horiek gune publikoetan nola egingo diren esplizituki adierazten ez badu ere, emakumeentzat dituen bereizkeriazko ondorioak ikusita, egintza juridiko hori, gutxienik, 3.1 b) artikulua zeharkako bereizkeriazat jotzen duen horretan kokatzen da, eta Administrazio Prozedura arautzeko Legearen 62.1 a) artikulua araberera, erabat deuseztatzea joa izateko zigorra merezi du. Gainera, 25.1 artikulutik (bigarren paragrafoa) legeko agindu berri bat sortzen da: kultur jarduerak debekatuta daude, gune publikoetan barrena ibiltzen badira eta emakumeei gizonei bezalaxe parte hartzen uzten ez badiete. Debeku horrek, Alardeei dagokienez, indartu eta sendotu egiten du Jendaurreko Ikuskizunak arautzeko 4/1995 euskal Legearen 18 a) artikulua, eta agindu zuzena ematen dio agintaritza eskudunari –4/1995 euskal Lege berak dioenez, udala da agintari eskuduna–.

Beste alde batetik, bi udalerrri horien jaietan bereizkeriarik gabeko gune bat prestatzeko neurriak hartzearen, udalek edo –bestela– euskal herri-administrazioek ez jarduteari dagokionez, berriro urratzen dira Berdintasunerako Legearen xedapenak. Izan ere, 3.4 eta 25.1 artikuluetatik ondorioztatzen denez, udal horiek genero-ikuspegia aintzat hartu behar dute beren jai- eta kulturapolitikan, ikuspegi horrek berdintasuna erdiesteko biderantz orientatu ditzan, eta horretarako modu eraginkorrean hartu behar dituzte beharrezkoak diren neurriak. Lege horren argitan, ezinbestekoa da Alarde publikoaren antolaketa berreskuratzea, herritar guztien ondare diren jai batzuk sendotzeko, edo, bestela, gutxienez, berdintasuneko Alardea antolatzeko gauza direnak horretarako gaitzea, udal baimena emanez eta diruz lagunduz. Halaber, neurri horien bidez udalek parte hartu beharra daukatela ondorioztatzen da 3.5 eta 3.6 artikuluetatik –eta beste herri-aginte batzuek ere betebehar hori izan lezakete, beren eskuduntza zehatzen araberera–, bada, emakumeei –ordezkari gutxien duen sektorea denez– bereziki lagunduko dieten ekintza positiboko neurriak hartzea ere behartzen dute artikuluoak, baita sexuaren arabera estereotipoak kentzea ere. Administrazioak alor honetan ez jardutea –62.1 a) artikuluko deuseztasun-kasuan sartzen den zuzeneko edo zeharkako bereizkeria modu bat ez bada behintzat–, Administrazio Prozeduraren Legearen 63 artikulua deuseztagarritasun erregimenaren mende dagoela ulertu behar da, eta jokaera horren kontra jo daitekeela, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 25.2 artikuluan oinarrituta, legeria hausten duelako, Administrazio Prozeduraren Legean ezarrita dagoen moduan.

Azkenik, Berdintasunerako Legeak funtsean aldatzen du udalek beren jaiak prestatzean duten aukeramenaren eremua, eta bi udalerriotan orain nagusitzen den bereizkeria desagerrarazteko eraginkorrak diren aukeretara mugatzen ditu egon daitezkeen aukerak, gainontzeko guztiak ez liratekeelako Zuzenbidearekin bat etorriko.